

opusdei.org

Senar-emazte amodiozko testigantza

"Gauza bat bakarrik eskatzen diot Jainkoari: Indarrak eman diezazkidala, nire emazte maitea zaindu dezadan hark nahi duen arte." Durangar Opus Deiko kide honek kontatzen digu bere egoera

2007 Mai 23

Sotero Agirrezabal izeneko 80 urteko gazte bat naiz, durangar betidanikoa. Gazte ekintzailea izanik, garai batean

sortu egin nuen durangaldeko
moldiztegia izan zena. Zera esan
dezaket nire buruaz: gizon aktibo,
sentikor eta “jenio txarrekoa”
naizela.

Sei urte direla zeharo aldatu zen nire
bizimodua, zeren nire emazte
maiteak zoritxarreko alzheimer
gaitza hartu baitzuen. Jarraitu
aurretik esan beharra dut, hura ere,
oso aktiboa eta izaera gogorrekoa
zela.

Jainkoak nahi izan du nire
emaztearen gaitzak oso bilakaera
azkarra izatea. Azken urteotan, gero
eta zailagoa da hari hitzen bat
aditzea. Zer zenaz pentsatzeak
harrituta uzten nau, gaitz batek egin
dezakeena frogatu egitean. Nik ez
dakit esaten dizkiodan hitzak
ulertzen ote dizkidan.

Egoera honetan, inoizka eta oso
baxu, eskerrak ematea entzuten
dudanean, ideia hauxe baino ez zait

burura etortzen: “eskerrik asko, ene Jainkoa, eman didazun maitasunezko seinale honengatik” eta, jarraian, egin duzun guztiak merezi izan duela pentsatzen dut.

Nire emaztearentzat eta bera zaintzeko baino ez naiz bizi. Jaiki egiten naizen goizeko zazpiretatik oheratu egiten naizen 22,30 ordutara arte. Egiten dudan lehena, zuku bat prestatzea da, xiringa baten laguntzaz eman behar diodana; geroago, garbitu, kremak ematen dizkiot zauri-bideak kentzeko,... eta, dena, maitasun osoz.

Askotan, botikara edo erosketak egitera joaten naizenean, hau galdetzen didate:

Nondik ateratzen dituzu indarrak hori guzti hori egiteko?

Kasualitatez izaten da hori Meza entzutetik itzultzean, eta zera esaten diet:

Nondik? Ba al dakizu nondik natorren? Mezatik, bertatik ateratzen baititut indarrak.

Goizero, eguna Jainkoari eskaintzean, zera esaten diot: guzti hau eskaini egiten dizut, laguntza baino ez dizut eskazen, nekea eta tristura datozenean, aurrera jarraitu ahal izateko indarrez. Eta horrelaxe da nire eguna, gehien maitatzen dudana pertsona zaintzen ematen dudana. Zaila izango litzateke zenbatzea zenbat aldiz diotsodan, belarrira, asko baino gehiago maite dudala, aditzen ote didan ez badakit ere.

Egunero, otoitz egitean eta Meza santuan, Jainkoari, eta arrosario santua errezatzean, Andra Mariari eskaintzen dizkiedan uneak dira, niretzat, indarra ateratzekoak, indar horren laguntzaz aurrera jarraitzeko estualdiak datozenean, horietakoak ere baitaude.

Gauza bat bakarrik eskatzen diot
Jainkoari: indarrak eman
diezazkidala, nire emazte maitea
zaindu dezadan hark nahi duen arte

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/senar-emazte-amodiozko-
testigantza/](https://opusdei.org/eu-es/article/senar-emazte-amodiozko-testigantza/) (2026 Ots 22)